




HIZKUNTZA eskubideak
udalerrri euskaldunetako
osasun zerbitzu publikoetan:
AZKEN BI URTEOTAKO DATUEN
AURKEZPENA
URRIAK 25, osteguna, 12:00etan,
Donostiako KOLDO MITXELENA
KULTURUNEAN

- 86 herri.
- 245.000 biztanle.
- **616 LANGILE:** familia medikuak,
larrialdietakoak, pediatriak,
erizainak eta harrerako langileak.

UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA
2018KO URRIAK 25

UEMAko KIDE DIREn HERRIETAKO DATU OROKORRAK


FAMILIA MEDIKUAK, PEDIATRAK, ERIZAINAK, HAUR ERIZAINAK,
HARRERAKO LANGILEAK ETA LARRIALDIETAKOAK KONTUAN HARTUTA



GUZTIRA:
616 LANGILE

■ HE dutenak: 483
■ HE ez dutenak: 133


OSAKIDETZA-EAE. DATU GUZTIAK BATERA HE IZAN ALA EZ



GUZTIRA:
533 LANGILE

■ HE dutenak: 457
■ HE ez dutenak: 76

OSASUNBIDEA-NAFARROA. DATU GUZTIAK BATERA HE IZAN ALA EZ




GUZTIRA:
83 LANGILE

■ HE dutenak: 26
■ HE ez dutenak: 57

DATU OROKORRAK, LANPOSTUAREN ARABERA


ARABA, BIZKAIA, GIPIUZKOA eta NAFARROA. FAMILIA MEDIKUAK HE IZAN ALA EZ



■ HE dutenak: 131
■ HE ez dutenak: 38

GUZTIRA:
169 FAMILIA MEDIKU


ARABA, BIZKAIA, GIPIUZKOA eta NAFARROA. PEDIATRAK HE IZAN ALA EZ



■ HE dutenak: 28
■ HE ez dutenak: 12

GUZTIRA:
40 PEDIATRA

ARABA, BIZKAIA, GIPIUZKOA eta NAFARROA. ERIZAINAK HE IZAN ALA EZ




■ HE dutenak: 101
■ HE ez dutenak: 49

GUZTIRA:
150 ERIZAIN

DATU OROKORRAK, LANPOSTUAREN ARABERA


ARABA, BIZKAIA, GIPUZKOA eta NAFARROA. HAUR ERIZAINAK HE IZAN ALA EZ



■ HE dutenak: 22
■ HE ez dutenak: 2

GUZTIRA:
24 HAUR ERIZAIN


ARABA, BIZKAIA, GIPUZKOA eta NAFARROA. HARRERAKOAK HE IZAN ALA EZ



■ HE dutenak: 51
■ HE ez dutenak: 5

GUZTIRA:
HARRERAKO
56 LANGILE


ARABA, BIZKAIA, GIPIZKOA eta NAFARROA. LARRIALDIETAKO MEDIKUAK HE IZAN ALA EZ



■ HE dutenak: 19
■ HE ez dutenak: 22

GUZTIRA:
LARRIALDIETAKO
41 mediku

EUSKAL HERRIA. LARRIALDIETAKO ERIZAINAK HE IZAN ALA EZ



■ HE dutenak: 11
■ HE ez dutenak: 5

GUZTIRA:
LARRIALDIETAKO
16 erizain

“Udalerririk euskaldunetan, osasun zerbitzuetako bost langiletik batek ez du hizkuntza eskakizunik”

UEMAko kide diren 86 herrietako osasun zerbitzu publikoak aztertu dira bi urtetik behin egiten den erradiografia honetan. Lehen aldiz, familia medikuak eta pediatrik ez ezik, erizainak, harrerako langileak eta larrialdietakoak ere hartu dira kontuan. **Guztira, 616 langiletik 133 langilek (%21,60) ez du hizkuntza eskakizunik. Nafarroaren kasuan, %68ra igotzen da hizkuntza eskakizunik gabeko langileen ehunekoak.** Orain arteko datuekin alderatuz gero, aurrerapausoak izan dira hainbat udalerritako anbulatorietan. **Eskubide urraketa betiko iraunkortu ez dadin, proposamen zehatza ere egin du UEMAk: “Unibertsitatean eragitea, eta oztopoak baino gehiago, fakultatetik eta osasun erakundeetatik ikasleei baliabideak eskaintzea euskaraz ikasteko eta euskaraz lan egiteko”.**

Josu Labaka, UEMAk lehendakaria: sarrera eta datu orokorrak

Eguerdion denoi. UEMAk osasungintza zerbitzu publikoen inguruan bi urtean behin egiten duen azterketaren berri ematera gatoz gaur. Zehazki, profesionalen hizkuntza gaitasuna aztertzen dugu, herritarrek euskaraz aritzeko duten eskubidea bermatu nahian, ardurak dituzten erakunde publikoekin elkarlanean egoera bideratu asmoz.

Izan ere, UEMAREN lurgunea biztanleen %70 baino gehiago euskalduna duten Gipuzkoako 44 udalerrik, Bizkaiko 28k, Arabako batek eta Nafarroako 13k osatzen dute. Guztira 240.000 biztanle inguruko lurgunea da. Euskararen arnasguneak dira herri hauek, herririk euskaldunenak direlako eta euskaraz modu naturalean aritzen direlako bertako herritarrak.

Udalerririk euskaldunenak izan arren, ordea, herritarrek oraindik ere zailtasunak dituzte askotan osasun zerbitzu publikoak euskaraz jasotzeko. Urte askoan eman dugu horren berri, eta bi urtetik behin datu zehatzak ere bildu izan ditugu. Ahaleginak ahalegin, ordea, bere horretan irauten du arazoak. Hori dela-eta, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako zein Nafarroako osasun etxeetako profesionalen hizkuntza-gaitasunen azterketa egin du berriro ere UEMAk. Aurten, gainera, pauso berriak eman ditugu. Izan ere, orain arte pediatrian eta familia medikuen datuak aztertu ditugu, baina aurten horiez gain erizainak, harrerako langileak eta larrialdietakoak ere hartu ditugu kontuan.

UEMAko kide diren herrietan, guztira, osasun zerbitzu publikoetan 133 langile daude hizkuntza eskakizunik gabe. **Mankomunitateko 87 udalerrietatik ia guztiei eragiten die egoera horrek, zerbitzu orokorretan ez bada, larrialdietan.** Osakidetzan, 76 ez dute dagokien maila. Osasunbideari begira, euskara merezimendu gisa dago ia lanpostu guztietan, eta UEMAko udalerrietan 57 langile daude inongo ziurtagiririk gabe (%68). **Datu orokorrak argiak dira: guztira, 616 pediatra, erizain, familia eta larrialdi mediku daude UEMAko herrietako osasun zerbitzuetan, eta horietatik 133k ez dute hizkuntza eskakizunik. Bostetik batek, alegia.** Horrez gain, nabarmendu behar dugu UEMAko hainbat udalerrietako bizilagunek herri handiagoetara jo behar dutela larrialdi zerbitzuak jasotzera, eta han arazo gehiago izaten dituztela.

Eneka Maiz, Etxarri-Aranazko alkatea eta UEMAko zuzendaritza batzordeko kidea: datu zehatzak eta Nafarroako udalerrietako egoera

Halako azken azterketa 2016 egin genuen, eta zentro batzuetan egoerak hobera egin badu ere, besteetan okerrera egin du edo bere horretan irauten du. Joera orokorra onerakoa bada ere, oraindik lan asko dago egiteko osasungintzaren alorrean. Mankomunitateko hainbat anbulatorioan urratsak egin dituzte, eta hizkuntza eskakizuna dute langile guztiek; hori da arnagune guztietarako nahi genukeen egoera. Azken urteetan zerbitzua euskaraz eskaintzeko pausoak eman dituzte hainbat osasun etxeetan. Zarautzen, Azpeitian, Markinan eta Bermeon, esaterako. Beste zenbait udalerritan, ordea, egoerak okerrera egin du. Herri horietan, areagotu egin da hizkuntza eskakizuna egiaztatu gabe duten sendagileen kopurua.

Udalerri batzuetan, bereziki larria da egoera. Izan ere, **sendagile edo pediatra guztiak dira euskaraz egiten ez dutenak.** Horrek esan nahi du herri horietako bizilagunak behartuta daudela gaztelaniaz hitz egitera medikuarekin. Deban, Aramaion, Zestoan, Getarian, Aizarnazabalen, Usurbilen eta Elgetan pediatra bakarra dute, eta ez du hizkuntza eskakizuna egiaztatuta. Beraz, herri horietako haurrek zerbitzua gaztekeraz jasotzea beste aukerarik ez dute. Goizuetako, Leitzako eta Aresoko umeek ere pediatra bat konpartitzen dute, eta ez da euskalduna.

Nafarroako arnaguneetako egoerari bereziki erreparatu behar diogu. Basaburuan mediku eta erizain erdaldunak dituzte. Euskaldunak zeuden, baina horiek erretiroa hartzean erdaldunak heldu dira. Berako kasua, benetan etsigarria da: bi mediku erdaldun dituzte. Pediatra ere erdalduna da. Eta baita harrerako langilea ere. Herriz herri, berriz, guardien eta txanden arabera, arazoak herri askotan dituzte.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak bere 2017ko plantilla organikoan hizkuntza eskakizunik ez zuten hainbat lanposturi hizkuntza eskakizuna jarri zien. 2018koan, berriz, egin duen aldaketa bakarra hizkuntza eskakizunen mailan dago. Lehen V1 zena orain B2 maila da kasu ia guztietan. Gainera, kontuan hartu behar da Nafarroan ez dela derrigortasun datarik ezartzen hizkuntza eskakizunak betetzeari begira. Hortaz, horrek esan nahi du plaza berriak ateratzen direnean ziurtatu beharko dutela eskatzen zaien gaitasuna profesionalak. Edo, bestela, nola egingo dute lehendik dauden eta hizkuntza eskakizuna izan arren, gaitasunik ez duten profesionalen euskalduntzea? Izan ere, badira hizkuntza eskakizuna izan arren, herritarrekin euskaraz komunikatzeko gai ez diren profesionalak. Alderantzizko egoera ere gertatzen da, zenbait mediku euskaraz ulertzeko edota komunikatzeko gai dira euren lanpostuak hizkuntza eskakizunik ez izan arren. Dena dela, asko dira oraindik hizkuntza eskakizunik ez duten lanpostuak.

Horri gehitu behar zaio Nafarroako Gobernuak 2017an 100 lanpostu berri inguru atera zituela lehiaketa publikora, eta haietatik hamabi soilik direla hizkuntza eskakizuna zutenak.

Kontuan hartzekoa da, Gobernuak eskualdez eskualde kokatzen dituela sendagile euskaldunak. Hori dela-eta, bizilagunak kexu dira, horrek ez duelako bermatzen beraien haurrek eta familiakoek sendagile euskalduna izatea. Nafarroan, gainera, bereziki arazoa dute emakumeen arretarako zentroetan, emaginekin eta ginekologoekin. Zentro horietan ez dira inolaz ere errespetatzen herritar euskaldunen hizkuntza eskubideak, eta behin baino gehiagotan eskaera zehatzak egin badira ere, ez da aurrerapausorik eman. Hizkuntza Eskubideen Behatokiak dituen datuen arabera, 144 kexa jaso ziren Nafarroan 2017an zehar. Kexa horietatik 75 (%52,1) osasun arloari dagozkionak dira.

Egoeraren kaskarra alde batera utzita, egoera onena izan daitekeen lekuetan oporraldietako ordezkapenek ere kolokan jartzen dute zerbitzu elebiduna.

Ziurgabetasuna, beraz, etengabea da. Baita erretiroa hartzekotan diren hainbat profesional daudenean ere; izan ere, udalerri horietako bizilagunek ez dakite ziur haien ordezkariak sendagile elebidunak izanen dituzten.

Ordezkapenak eta joan-etorriak

Udako ordezkapenak egiterakoan, euskaraz ez dakiten medikuak jarri dituzte zentro askotan, mediku euskaldunen ordezkari gisa. Amezketako herritarrek, esaterako, salatu zuten egoera, uda hasieran, baina hainbat udaletan gertatu da aurten ere.

Udako ordezkapenen kontua ez dago islatuta bildu ditugun datuetan, postua berea duten profesionalen perfilak aztertu direlako. Arazoak, ordea, agerikoak dira urtea joan eta urtea etorri, ordezkapenekin. Herritarren kexen ostean, barkamena eskatzearekin batera, honakoa da aurten Osakidetzatik heldu den erantzunaren zati bat:

“Gauza jakina denez, zailtasun handiak izaten ditugu oporraldi garaian medikuak ordezkatzeko orduan, udako oporraldian mediku asko ordezkatu behar izaten ditugulako batera eta ordezkoen zerrendan ez dagoelako nahikoa mediku euskaldun. (...) Bi aukeren artean hautatu behar izaten dugu: zerbitzu medikoa ez ematea edota zerbitzua bermatzea euskaraz ez dakiten profesionalekin; eta guk bigarren hautuaren alde egiten dugu ezinbestean”.

Amaitzeko, erretiratzear diren profesionalen egoera ere aipatu nahi dugu. Izan ere, zenbait udalerritan, bizilagunek ez dakite haien ordezkari mediku euskaldunak izango dituzten. Hori dela-eta, **UEMATik beste behin ere eskatzen dugu udalerrri euskaldunetan egingo diren kontratazio berri guztietan, behintzat, profesional euskaldunak har daitezen.**

Josu Labaka: ondorioak eta hezkuntzan eragiteko eskaera zehatza

Urteak joan eta urteak etorri jarraitzen dugu esaten ezinbestekoa dela osasungintzako zerbitzua euskaraz bermatzea. Datuek ikusarazten dutenez, UEMAko udalerrietako osasun etxe publiko askotan ez da errespetatzen herritarrek euskaraz aritzeko duten eskubidea. Hobekuntzak izan dira. Pediatren eta familia medikuen datuak alderatuta, egoerak hobera egin duela ikusten da, hartu diren neurrien ondorioz. Baina udalerrri batzuetan egoera larria da oraindik. Hori dela-eta, beste behin, lankidetzan jarraitzeko borondatea agertzearekin batera, neurri zehatzak hartzeko eskatzen diogu Osakidetzari eta Osasunbideari, egoera hobetzeko urratsak egin ditzaten.

Gure helburua da herritar guztien hizkuntza eskubideak errespetatzea, bai osasungintzako arloan, baita administrazio publikoko nahiz bizitzako gainontzeko esparruetan ere. Askotan esan dugun moduan, zerbitzuaren kalitatea eskasa izango da beti, herritarrak nahi duen hizkuntza ofiziala hautatzeko bermerik ez badu. UEMAko udalerriek baldintza bereziak dituzte, gainera, herritarren %70k baino gehiagok dakielako euskaraz. Horregatik sinisten dugu bide-urratzaileak izan behar dugula udalerrri hauek euskararen normalizazioan, eta beharrezkoa dela gure herrietan neurri aurrerakoiak hartzea.

Osasungintza, jakina, ez da salbuespena. UEMAK eta UEMAko udalek ahalegin handia egin dugu herri euskaldunetako udalek euskaraz funtziona dezaten. Euskararen arnaguneetan beren zerbitzuak eskaintzen dituzten gainerako administrazio publikoei ere ahalegin berbera

eskatzen diegu. Ez da borondate kontua, gainera. Betebeharra baizik. Administrazio publikoak legez dauka zerbitzuak euskaraz eskaintzeko betebeharra.

Horregatik, zehazki, gaur, **honakoa nabarmendu eta eskatu nahi dugu publikoki: hezkuntza arloari garrantzia ematea, eta osasungintza publikoa euskalduntzeko neurri ausartak hartzea.** Izan ere, unibertsitatean medikuntzako eta erizaintzako plaza kopuru bat dago. Datorren ikasturtetik aurrera, euskaldunentzat 140 plaza gordeko ditu EHUK. Baina ez da medikuntza eta erizaintzako plazen erdia ere. **Ez da nahikoa. Dagoen eskariari aurre egiteko, euskal adarrean plaza gehiago gorde behar dira.**

Hau guztia, gainera, sorgin gurpil bat da azken batean. Osasun zerbitzuetan bertan lana egiteko euskara eskatzen ez den bitartean, euskal ikasle askok gazteleraz egiten dituzte oraindik ikasketak, erraztasun gehiago ematen zaizkielako. Euskarazko adarrean, gainera, arazo handiak dituzte oraindik euskaraz ikasteko, ikasleek askotan salatu duten bezala. Azterketak egiterakoan ere, gaztelania hautatzeko iradokitzen diete osasun erakundeetatik. Beraz, eskubide urraketa iraunkortu ez dadin, ezinbestean, hezkuntza sailetik hartutako erabakiekin eragin behar da.

Donostian, 2018ko urriaren 25ean

ARABA

Lanpostuaren inguruko informazioa				Lanean ari denaren inguruko informazioa
Zentroa	Lanpostua	Plazaren HE	Derrigortasun data	HE
Aramaioko kontsultategia	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	3 HE
Aramaioko kontsultategia	Erizaina	2 HE	2008-06-01	Ez dauka

Arrasatera joaten dira pediaterrenera. Ez da euskalduna.

GIPUZKOA

Urola Erdia

Lanpostuaren inguruko informazioa				Lanean ari denaren inguruko informazioa
Zentroa	Lanpostua	Plazaren HE	Derrigortasun data	HE
Azpeitiko EAG	Familia medikua	2 HE	2012-12-01	Ez dauka
Azpeitiko EAG	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	3 HE
Azpeitiko EAG	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	3 HE
Azpeitiko EAG	Familia medikua	2 HE	2016-12-03	Ez dauka
Azpeitiko EAG	Erizaina	2 HE	2008-06-01	2 HE
Azpeitiko EAG	Erizaina	2 HE	2008-06-01	2 HE
Azpeitiko EAG	Erizaina	2 HE	2008-06-01	Ez dauka
Azpeitiko EAG	Erizaina	2 HE	2009-06-01	Ez dauka
Azpeitiko anbulatorioa	Familia medikua	2 HE	2007-06-01	3 HE
Azpeitiko anbulatorioa	Familia medikua	2 HE	2013-12-03	3 HE
Azpeitiko anbulatorioa	Familia medikua	2 HE	2009-06-01	2 HE
Azpeitiko anbulatorioa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	3 HE
Azpeitiko anbulatorioa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	3 HE

Azpeitiko anbulatorioa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	Ez dauka
Azpeitiko anbulatorioa	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	3 HE
Azpeitiko anbulatorioa	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	2 HE
Azpeitiko anbulatorioa	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	Ez dauka
Azpeitiko anbulatorioa (Aldatu dute, eta euskalduna da)	Pediatra	2 HE	2008-06-01	Ez dauka
Azpeitiko anbulatorioa (+ Errezil)	Pediatra	2 HE	2008-06-01	3 HE
Azpeitiko anbulatorioa	Pediatra	2 HE	2013-12-03	3 HE
Azpeitiko anbulatorioa	Erizaina	2 HE	2007-06-01	2 HE
Azpeitiko anbulatorioa	Erizaina	2 HE	2014-12-09	Ez dauka
Azpeitiko anbulatorioa	Erizaina	2 HE	2011-06-01	3 HE
Azpeitiko anbulatorioa	Erizaina	2 HE	2011-06-30	2 HE
Azpeitiko anbulatorioa	Erizaina	2 HE	2008-06-01	3 HE
Azpeitiko anbulatorioa	Erizaina	2 HE	2005-06-01	3 HE
Azpeitiko anbulatorioa	Erizaina	2 HE	2008-06-01	2 HE
Azpeitiko anbulatorioa	Erizaina	2 HE	2005-06-01	3 HE
Azpeitiko anbulatorioa	Haur erizaina	2 HE	2008-06-01	2 HE
Azpeitiko anbulatorioa	Haur erizaina	2 HE	2008-06-01	2 HE
Azpeitiko anbulatorioa	Harrera	2 HE	2013-12-03	3 HE
Azpeitiko anbulatorioa	Harrera	2 HE	2005-06-01	2 HE
Azpeitiko anbulatorioa	Harrera	2 HE	2005-06-01	2 HE
Azpeitiko anbulatorioa	Harrera	2 HE	2008-06-01	2 HE
Azpeitiko anbulatorioa	Harrera	2 HE	2007-12-15	2 HE
Zestoako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	3 HE
Zestoako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	3 HE
Zestoako osasun zentroa (+ Aizarnazabal + Getaria)	Pediatra	2 HE	2008-06-01	Ez dauka
Zestoako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2005-06-01	3 HE
Zestoako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2005-06-01	3 HE
Zestoako osasun zentroa	Haur erizaina	2 HE	2016-07-20	3 HE

Zestoako osasun zentroa (Jubitu egin da, eta orain daudenak euskaldunak dira)	Harrera	2 HE	2005-06-01	Ez dauka
Errezilgo kontsultategia	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	2 HE
Errezilgo kontsultategia	Erizaina	2 HE	2005-06-01	3 HE

Urola Kosta

Lanpostuaren inguruko informazioa				Lanean ari denaren inguruko informazioa
Zentroa	Lanpostua	Plazaren HE	Derrigortasun data	HE
Zarauzko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2010-12-01	Ez dauka
Zarauzko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2010-12-02	3 HE
Zarauzko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2010-12-01	1 HE
Zarauzko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2010-12-01	2 HE
Zarauzko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	2 HE
Zarauzko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2018-12-03	3 HE
Zarauzko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	2 HE
Zarauzko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	2 HE
Zarauzko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	3 HE
Zarauzko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	3 HE
Zarauzko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	3 HE
Zarauzko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2015-07-20	Ez dauka
Zarauzko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	DDrik ez dauka	Ez dauka
Zarauzko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	Ez dauka
Zarauzko osasun zentroa	Pediatra	2 HE	2005-06-01	3 HE
Zarauzko osasun zentroa	Pediatra	2 HE	2008-06-01	Ez dauka
Zarauzko osasun zentroa	Pediatra	2 HE	2005-06-01	3 HE

Zarauzko osasun zentroa	Pediatra	2 HE	2010-07-01	2 HE
Zarauzko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2008-06-01	3 HE
Zarauzko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2005-06-01	2 HE
Zarauzko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2009-12-02	2 HE
Zarauzko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2010-12-31	1 HE
Zarauzko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2005-06-01	2 HE
Zarauzko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2005-06-01	3 HE
Zarauzko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	Ez du DDrik	Ez dauka
Zarauzko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2008-06-01	2 HE
Zarauzko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2008-06-01	2 HE
Zarauzko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2011-06-01	2 HE
Zarauzko osasun zentroa	Haur erizaina	2 HE	2008-06-01	2 HE
Zarauzko osasun zentroa	Hau erizaina	2 HE	2008-06-01	2 HE
Zarauzko osasun zentroa	Haur erizaina	2 HE	2008-06-01	2 HE
Zarauzko osasun zentroa	Harrera	2 HE	2011-06-30	3 HE
Zarauzko osasun zentroa	Harrera	2 HE	2005-06-01	3 HE
Zarauzko osasun zentroa	Harrera	2 HE	2005-06-01	3 HE
Zarauzko osasun zentroa	Harrera	2 HE	2005-06-01	3 HE
Zarauzko osasun zentroa	Harrera	2 HE	2005-06-01	3 HE
Zarauzko EAG	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	2 HE
Zarauzko EAG	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	2 HE
Zarauzko EAG	Familia medikua	2 HE	2013-12-03	3 HE
Zarauzko EAG	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	2 HE
Zarauzko EAG	Erizaina	2 HE	2008-06-01	2 HE
Zarauzko EAG	Erizaina	2 HE	2010-07-01	2 HE
Zarauzko EAG	Erizaina	2 HE	2008-06-01	3 HE
Zarauzko EAG	Erizaina	2 HE	2007-06-01	3 HE
Zumaiako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2016-12-03	3 HE
Zumaiako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2010-12-01	3 HE
Zumaiako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	Ez du DDrik	Ez dauka
Zumaiako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	3 HE
Zumaiako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	3 HE

Zumaiako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	3 HE
Zumaiako osasun zentroa	Pediatra	2 HE	2011-06-01	3 HE
Zumaiako osasun zentroa	Pediatra	2 HE	2005-06-01	3 HE
Zumaiako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2011-06-30	2 HE
Zumaiako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2005-06-01	Ez dauka
Zumaiako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2009-12-01	3 HE
Zumaiako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2005-06-01	2 HE
Zumaiako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2010-07-01	Ez dauka
Zumaiako osasun zentroa	Haur erizaina	2 HE	2005-06-01	3 HE
Zumaiako osasun zentroa	Harrera	2 HE	2005-06-01	3 HE
Zumaiako osasun zentroa	Harrera	2 HE	2007-06-01	3 HE
Getariako osasun zentroa (+ Aizarnazabal)	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	2 HE
Getariako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	2 HE
Getariako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2010-12-31	3 HE
Getariako osasun zentroa	Haur erizaina	2 HE	2005-06-01	3 HE
Getariako osasun zentroa	Harrera	2 HE	2008-06-01	3 HE
Orioko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	2 HE
Orioko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	2 HE
Orioko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	3 HE
Orioko osasun zentroa	Pediatra	2 HE	2008-06-01	3 HE
Orioko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2008-06-01	Ez dauka
Orioko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2005-06-01	2 HE
Orioko osasun zentroa	Haur erizaina	2 HE	2008-06-01	2 HE
Orioko osasun zentroa	Harrera	2 HE	2016-12-03	3 HE
Orioko osasun zentroa	Harrera	2 HE	2005-06-01	2 HE

Goierri + Ezkio

Lanpostuaren inguruko informazioa				Lanean ari denaren inguruko informazioa
Zentroa	Lanpostua	Plazaren HE	Derrigortasun data	HE
Legorretako kontsultategia (behin-behinean ari da lanean, plaza esleitu gabe dagoelako)	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	3 HE
Legorretako kontsultategia	Erizaina	2 HE	2008-06-01	2 HE
Ataungo kontsultategia	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	2 HE
Ataungo kontsultategia	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	3 HE
Ataungo kontsultategia	Erizaina	2 HE	2005-06-01	3 HE
Itsasondoko kontsultategia (Arama eta Alzaga)	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	2 HE
Itsasondoko kontsultategia	Erizaina	2 HE	2005-06-01	3 HE
Zaldibiako kontsultategia	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	3 HE
Zaldibiako kontsultategia	Erizaina	2 HE	2008-06-01	2 HE
Segurako kontsultategia (+ Zerain)	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	3 HE
Segurako kontsultategia	Erizaintza	2 HE	2008-06-01	2 HE
Ezkio-Itsasoko kontsultategia (+ Gabiria)	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	3 HE
Lazkaoko osasun zentroa (Ataungo haurrak)	Pediatra	2 HE	2015-12-03	Ez dauka
Lazkaoko osasun zentroa (Ataungo haurrak)	Haur erizaina	2 HE	2008-06-01	2 HE
Lazkaoko osasun zentroa (Ataungo haurrak)	Harrerakoa	2 HE	2005-06-01	2 HE

Lazkaoko osasun zentroa (Ataungo haurrak)	Harrerakoa	2 HE	2009-06-01	2 HE
Lazkaoko osasun zentroa (Ataungo haurrak)	Harrerakoa	2 HE	2005-06-01	3 HE

- Arama eta Alzaga: Pediatrarenera, Ordiziara. Bi pediatra, biak euskaldunak. Bietako batek erizain erdalduna du.
- Itsasondo: Ordiziara, pediatra euskalduna.
- Zaldibia eta Gaintza: Ordiziara, pediatra euskalduna.
- Gabiria: pediatra Zumarragan. Ulertzen du, baina ez daki hitz egiten. Erizaina euskalduna du.
- Ezkio: pediatra Zumarragan. Hiru pediatra daude, burua euskalduna da, baina beste biak askotan aldatzen dira. Batzuetan euskaldunak tokatzen dira; besteetan, ez.
- Zerain: Familia medikua herrian bertan, euskalduna. Pediatra Beasainen, euskalduna.
- Legorreta: pediatra Alegian, euskalduna.
- Segura: Pediatra Beasainen, euskalduna.
- Larrialdiak udalerri guztiek Beasainen: Bost medikutatik, bik dute egiaztatuta dagokien hizkuntz eskakizuna. Beste bik ez dute derrigortasun datarik.

Debarrena

Lanpostuaren inguruko informazioa				Lanean ari denaren inguruko informazioa
Zentroa	Lanpostua	Plazaren HE	Derrigortasun data	HE
Mutrikuko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	3 HE
Mutrikuko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	3 HE
Mutrikuko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	2 HE
Mutrikuko osasun zentroa	Pediatra	2 HE	2005-06-01	3 HE
Mutrikuko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2008-06-01	2 HE
Mutrikuko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2005-06-01	3 HE
Mutrikuko osasun zentroa	Haur erizaina	2 HE	2008-06-01	2 HE
Mutrikuko osasun zentroa	Harrera	2 HE	2005-06-01	2 HE

Debako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	Ez dauka
Debako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2010-12-01	4 HE
Debako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2010-12-01	3 HE
Debako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2013-12-03	Ez dauka
Debako osasun zentroa	Pediatra	2 HE	2008-06-01	Ez dauka
Debako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2005-06-01	3 HE
Debako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2008-06-01	2 HE
Debako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2008-06-01	3 HE
Debako osasun zentroa	Haur erizaina	2 HE	2011-06-30	2 HE
Debako osasun zentroa	Harrera	2 HE	2008-06-01	3 HE
Mendaroko kontsulta	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	3 HE
Mendaro	Pediatra (Elgoibartik joaten da asteen behin)	2 HE	2005-06-01	2 HE
Mendaro	Erizaina (euskalduna da)	2 HE	2005-06-01	Ez du HE
Mendaro	Harrera (Norberak eginez gero egiten du euskaraz, bestela gaztelaniaz)	2 HE	2006-07-20	2 HE

Debagoiena

Lanpostuaren inguruko informazioa				Lanean ari denaren inguruko informazioa
Zentroa	Lanpostua	Plazaren HE	Derrigortasun data	HE
Bergarako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	3 HE
Bergarako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	3 HE
Bergarako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2010-12-01	3 HE

Bergarako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	3 HE
Bergarako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	Ez dauka
Bergarako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2013-12-03	2 HE
Bergarako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2010-12-01	Ez dauka
Bergarako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2013-12-03	2 HE
Bergarako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	3 HE
Bergarako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	2 HE
Bergarako osasun zentroa (+Elgeta) Hurrei euskaraz egiten saiatzen da	Pediatra	2 HE	2008-06-01	Ez dauka
Bergarako osasun zentroa (+Antzuola)	Pediatra	2 HE	2008-06-01	2 HE
Bergarako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2013-12-03	3 HE
Bergarako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2005-06-01	Ez dauka
Bergarako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2008-06-01	Ez dauka
Bergarako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2005-06-01	3 HE
Bergarako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2008-06-01	1 HE
Bergarako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2010-10-23	2 HE
Bergarako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2010-10-23	Ez dauka
Bergarako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2011-06-30	2 HE
Bergarako osasun zentroa	Haur erizaina	2 HE	2005-06-01	2 HE
Bergarako osasun zentroa	Haur erizaina	2 HE	2008-06-01	Ez dauka
Bergarako osasun zentroa	Harrera	2 HE	2005-06-01	2 HE
Bergarako osasun zentroa	Harrera	2 HE	2005-06-01	3 HE
Bergarako osasun zentroa	Harrera	2 HE	2016-12-03	Ez dauka
Bergarako osasun zentroa	Harrera	2 HE	2005-06-01	3 HE
Bergarako osasun zentroa	Harrera	2 HE	2008-11-03	3 HE
Bergarako osasun zentroa	Harrera	2 HE	2011-03-01	2 HE
Oñatiko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2007-06-01	3 HE
Oñatiko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2010-12-01	Ez dauka
Oñatiko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2010-12-01	3 HE
Oñatiko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	2 HE

Oñatiko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	3 HE
Oñatiko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	3 HE
Oñatiko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	2 HE
Oñatiko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2014-12-09	Ez dauka
Oñatiko osasun zentroa	Pediatra	2 HE	2008-06-01	Ez dauka
Oñatiko osasun zentroa	Pediatra	2 HE	2010-12-01	2 HE
Oñatiko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2008-06-01	2 HE
Oñatiko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2008-06-01	2 HE
Oñatiko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2007-05-01	3 HE
Oñatiko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2005-05-01	2 HE
Oñatiko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2011-06-30	3 HE
Oñatiko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2005-06-01	2 HE
Oñatiko osasun zentroa	Haur erizaina	2 HE	2008-06-01	Ez dauka
Oñatiko osasun zentroa	Harrera	2 HE	2005-06-01	3 HE
Oñatiko osasun zentroa	Harrera	2 HE	2008-06-01	2 HE
Oñatiko osasun zentroa	Harrera	2 HE	2016-12-03	Ez dauka
Oñatiko osasun zentroa	Harrera	2 HE	2007-06-01	2 HE
Antzuolako kontsultategia	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	3 HE
Antzuolako kontsultategia	Erizaina	2 HE	2005-06-01	2 HE
Elgetako kontsultategia	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	3 HE
Elgetako kontsultategia	Erizaina	2 HE	2005-06-01	2 HE

Oiartzun

Lanpostuaren inguruko informazioa				Lanean ari denaren inguruko informazioa
Zentroa	Lanpostua	Plazaren HE	Derrigortasun data	HE
Oiartzungo osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2010-12-01	2 HE
Oiartzungo osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	2 HE
Oiartzungo osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	Ez dauka

Oiartzungo osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	3 HE
Oiartzungo osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2015-07-20	3 HE
Oiartzungo osasun zentroa	Pediatra	2 HE	2005-06-01	2 HE
Oiartzungo osasun zentroa	Pediatra	2 HE	2010-12-01	3 HE
Oiartzungo osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2005-06-01	2 HE
Oiartzungo osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2008-06-01	2 HE
Oiartzungo osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2008-06-01	3 HE
Oiartzungo osasun zentroa	Erizaina	2 HE	DDrik ez du	2 HE
Oiartzungo osasun zentroa	Haur erizaina	2 HE	2008-06-01	2 HE
Oiartzungo osasun zentroa	Harrera	2 HE	2011-06-30	3 HE
Oiartzungo osasun zentroa	Harrera	2 HE	2005-06-01	2 HE
Oiartzungo osasun zentroa	Harrera	2 HE	2010-07-01	Ez dauka

Usurbil

Lanpostuaren inguruko informazioa				Lanean ari denaren inguruko informazioa
Zentroa	Lanpostua	Plazaren HE	Derrigortasun data	HE
Usurbilgo osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2010-12-01	Ez dauka
Usurbilgo osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	3 HE
Usurbilgo osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	2 HE
Usurbilgo osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2007-06-01	3 HE
Usurbilgo osasun zentroa	Pediatra	2 HE	2008-06-01	Ez dauka
Usurbilgo osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2010-12-31	2 HE
Usurbilgo osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2005-06-01	2 HE
Usurbilgo osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2005-06-01	3 HE
Usurbilgo osasun zentroa	Haur erizaina	2 HE	2005-06-01	2 HE
Usurbilgo osasun zentroa	Harrera	2 HE	2008-06-01	2 HE
Usurbilgo osasun zentroa	Harrera	2 HE	2005-06-01	2 HE

Tolosaldea

Lanpostuaren inguruko informazioa				Lanean ari denaren inguruko informazioa
Zentroa	Lanpostua	Plazaren HE	Derrigortasun data	HE
Tolosako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2007-06-01	Ez dauka
Tolosako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	Ez dauka DDrik	2 HE
Tolosako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2013-12-03	3 HE
Tolosako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2009-06-01	2 HE
Tolosako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	Ez dauka DDrik	Ez dauka
Tolosako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2013-12-03	2 HE
Tolosako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	3 HE
Tolosako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2013-12-03	3 HE
Tolosako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	2 HE
Tolosako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2010-12-01	Ez dauka
Tolosako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	Ez dauka DDrik	2 HE
Tolosako osasun zentroa	Pediatra	2 HE	2005-06-01	2 HE
Tolosako osasun zentroa	Pediatra	2 HE	2008-06-01	3 HE
Tolosako osasun zentroa	Pediatra	2 HE	2008-06-01	2 HE
Tolosako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2013-12-03	Ez dauka
Tolosako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2005-06-01	Ez dauka
Tolosako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2010-06-01	2 HE
Tolosako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	Ez dauka DDrik	2 HE
Tolosako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2019-07-18	2 HE
Tolosako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2015-12-28	3 HE
Tolosako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2013-12-03	3 HE
Tolosako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2010-06-01	2 HE

Tolosako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2011-06-30	Ez dauka
Tolosako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2011-06-30	3 HE
Tolosako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2013-12-03	2 HE
Tolosako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2015-12-28	3 HE
Tolosako osasun zentroa	Haur erizaina	2 HE	2005-06-01	3 HE
Tolosako osasun zentroa	Haur erizaina	2 HE	2009-12-01	3 HE
Tolosako osasun zentroa	Harrera	2 HE	2005-06-01	2 HE
Tolosako osasun zentroa	Harrera	2 HE	2005-06-01	3 HE
Tolosako osasun zentroa	Harrera	2 HE	2008-11-03	2 HE
Tolosako osasun zentroa	Harrera	2 HE	2005-06-01	Ez dauka
Tolosako osasun zentroa	Harrera	2 HE	2005-06-01	2 HE
Lizartzako kontsultategia	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	3 HE
Lizartzako kontsultategia	Erizaina	2 HE	2008-06-01	Ez dauka
Alegiako osasun zentroa (+ Beizama + Baliarrain + Orendain + Ikaztegieta + Altzo)	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	2 HE
Alegiako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	2 HE
Alegiako osasun zentroa (+ Beizama + Legorreta + Orendain + Baliarrain + Ikaztegieta + Altzo + Amezketeta)	Pediatra	2 HE	2014-12-03	3 HE
Alegiako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2005-06-01	2 HE
Alegiako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2008-06-01	Ez dauka
Alegiako osasun zentroa	Haur erizaina	2 HE	2005-06-01	2 HE
Alegiako osasun zentroa	Harrera	2 HE	2005-06-01	3 HE
Alegiako osasun zentroa	Harrera	2 HE	2005-06-01	3 HE
Amezketako kontsultategia	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	3 HE
Amezketako kontsultategia	Erizaina	2 HE	2005-06-01	2 HE
Irurako kontsultategia	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	3 HE
Irurako kontsultategia	Erizaina	2 HE	2008-06-01	2 HE

Anoetako kontsultategia	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	3 HE
Anoetako kontsultategia	Erizaina	2 HE	2008-06-01	3 HE
Anoetako kontsultategia	Harrera	2 HE	2005-06-01	3 HE
Berastegiko kontsultategia	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	2 HE
Berastegiko kontsultategia	Erizaina	2 HE	2008-06-01	Ez dauka (Ulertzen du zerbait)

- Udalerri hauetako herritarrek Ibarrako osasun etxeko zerbitzua jasotzen dute, herrian bertan edo Ibarrian: Berastegi, Leaburu-Txarama, Gaztelu, Orexa, Lizartza. Medikua eta pediatra, biak euskaldunak. Berastegi. Pediatra, euskalduna.
- Udalerri hauetako herritarrek Villabonako osasun etxeko zerbitzua jasotzen dute, herrian bertan edo Villabonan: Aduna. Medikua eta pediatra, biak euskaldunak. Irura eta Anoeta. Pediatra. Bi pediatra euskaldun egon ohi dira, eta haien ordezkoa erdalduna da. Dena den, ez dute hizkuntza eskakizuna.

BIZKAIA

Lea-Artibai

Lanpostuaren inguruko informazioa				Lanean ari denaren inguruko informazioa
Zentroa	Lanpostua	Plazaren HE	Derrigortasun data	HE
Markinako osasun zentroa (+ Ziortza-Bolibar)	Familia medikua	2 HE	2011-06-01	3 HE
Markinako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2010-12-01	3 HE
Markinako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	2 HE
Markinako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	2 HE
Markinako osasun zentroa (+Ziortza-Bolibar + Berriatua)	Pediatra	2 HE	2008-06-01	Ez dauka. Ordezkoa dago lanean, eta euskalduna da.
Markinako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2007-06-01	3 HE
Markinako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2005-07-01	3 HE
Markinako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2005-07-01	3 HE
Markinako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2011-06-30	3 HE
Markinako osasun zentroa	Harrera	2 HE	2010-12-01	3 HE
Ondarroako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	2 HE
Ondarroako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	1 HE
Ondarroako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	2 HE
Ondarroako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2010-12-01	3 HE
Ondarroako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	2 HE
Ondarroako osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2015-12-28	Ez dauka
Ondarroako osasun zentroa	Pediatra	2 HE	2005-06-01	4 HE
Ondarroako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2008-06-01	2 HE
Ondarroako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2008-06-01	Ez dauka
Ondarroako osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2005-06-01	3 HE
Ondarroako osasun zentroa	Haur erizaina	2 HE	2008-06-01	2 HE

Ondarroako osasun zentroa	Harrera	2 HE	2005-06-01	3 HE
Ondarroako osasun zentroa	Harrera	2 HE	2016-12-03	2 HE
Ondarroako EAG	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	3 HE
Ondarroako EAG	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	2 HE
Ondarroako EAG	Familia medikua	2 HE	2011-06-01	2 HE
Ondarroako EAG	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	4 HE
Ondarroako EAG	Erizaina	2 HE	2011-06-01	2 HE
Ondarroako EAG	Erizaina	2 HE	2008-06-01	Ez dauka
Ondarroako EAG	Erizaina	2 HE	2005-06-01	3 HE
Ondarroako EAG	Erizaina	2 HE	2008-06-01	3 HE
Lekeitioko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2015-12-28	2 HE
Lekeitioko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	2 HE
Lekeitioko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	3 HE
Lekeitioko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	3 HE
Lekeitioko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2010-12-01	2 HE
Lekeitioko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2008-06-01	3 HE
Lekeitioko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2008-06-01	1 HE
Lekeitioko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2015-12-08	3 HE
Lekeitioko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2009-06-01	3 HE
Lekeitioko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2011-06-30	2 HE
Lekeitioko osasun zentroa (+Amoroto + Gizaburuaga + Aulesti + Ea)	Pediatra	2 HE	2008-06-01	3 HE
Lekeitioko osasun zentroa	Haur erizaina	2 HE	2005-06-01	2 HE
Lekeitioko osasun zentroa	Harrera	2 HE	2005-06-01	3 HE
Lekeitioko osasun zentroa	Harrera	2 HE	2005-06-01	3 HE
Lekeitioko osasun zentroa	Harrera	2 HE	2010-12-01	3 HE
Lekeitioko EAG	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	Ez dauka
Lekeitioko EAG	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	4 HE
Lekeitioko EAG	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	2 HE
Lekeitioko EAG	Familia medikua	2 HE	2011-06-01	2 HE
Lekeitioko EAG	Erizaina	2 HE	2008-06-01	Ez dauka

Lekeitioko EAG	Erizaina	2 HE	2008-06-01	3 HE
Lekeitioko EAG	Erizaina	2 HE	2011-06-01	2 HE
Lekeitioko EAG	Erizaina	2 HE	2005-06-01	3 HE
Aulestiko kontsultategia (+Gizaburuaga)	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	2 HE
Aulestiko kontsultategia	Erizaina	2 HE	2005-06-01	1 HE
Amorotoko kontsultategia	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	3 HE
Amorotoko kontsultategia	Erizaina	2 HE	2005-06-01	2 HE

- Munitibarko medikua: astean bitan joaten da herrira, euskalduna da.
- Munitibarko pediatra: Gauegiz-Arteagara, Muxikara, Busturiara edo Forura joaten dira pediatrarengana, asteko egunaren arabera. Euskalduna da, baina ordezkoa erdalduna izaten da.
- Berriatua: Herrian bertan dute medikua, euskalduna da. Bajan dago plazaren jabea, ordezkoa erdalduna da.

Durangaldea

Lanpostuaren inguruko informazioa				Lanean ari denaren inguruko informazioa
Zentroa	Lanpostua	Plazaren HE	Derrigortasun data	HE
Atxondoko kontsultategia	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	2 HE
Atxondoko kontsultategia	Erizaina	2 HE	2010-06-01	2 HE
Atxondoko kontsultategia	Harrera	2 HE	2011-03-10	2 HE
Izurtza-Mañariako kontsultategia	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	3 HE
Izurtza-Mañariako kontsultategia	Erizaina	2 HE	2005-06-01	Ez dauka
Otxandioko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	3 HE
Otxandioko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2005-06-01	2 HE

- Atxondo: Familia medikua, erizaina eta pediatra euskaldunak dira, eta harrerakoak HE badu ere ez du joerarik euskaraz egiteko.
- **Otxandio: Pediatrarenera Legutiora joaten dira, eta erdalduna da.** Medikua eta erizaina euskaldunak dira.
- Mallabia: Familia medikua euskalduna da. Erizaina euskaldun berria, eta pixka bat kostatzen zaio, baina ez du arazorik jartzen euskaraz egiteko. Pediatrarenera, berriz, **Ernuara joaten dira. Han hiru pediatra daude, horietako 2 euskaldunak dira, eta 1 erdalduna** (hala ere, jubilatzeke zorian omen dago).
- Izurtza: Pediatrarenera Durangora joaten dira, eta euskalduna da. Medikua euskalduna, baina erizaina ez.
- Mañaria: Pediatrarenera Iurretara eta Durangora joaten dira; Iurretakoa euskalduna da. Medikua euskalduna da, erizainak ez du HE eta ez da euskalduna.

Arratia + Orozko

Lanpostuaren inguruko informazioa				Lanean ari denaren inguruko informazioa
Zentroa	Lanpostua	Plazaren HE	Derrigortasun data	HE
Areatzako kontsultategia	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	2 HE
Areatzako kontsultategia	Erizaina	2 HE	2005-06-01	2 HE
Dimako kontsultategia	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	3 HE
Dimako kontsultategia	Erizaina	2 HE	2008-06-01	Ez dauka
Igorreko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	2 HE
Igorreko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	Ez dauka
Igorreko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2011-06-01	2 HE
Igorreko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2008-06-01	3 HE
Igorreko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2011-06-01	3 HE
Igorreko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2005-06-01	3 HE
Igorreko osasun zentroa	Pediatra	2 HE	2008-06-01	3 HE
Igorreko osasun zentroa	Haur erizaina	2 HE	2005-06-01	2 HE
Igorreko osasun zentroa	Harrera	2 HE	2005-06-01	2 HE
Igorreko osasun zentroa	Harrera	2 HE	2011-06-01	Ez dauka
Igorreko osasun zentroa	Harrera	2 HE	2011-06-30	3 HE
Orozkoko kontsultategia	Familia medikua	2 HE	2010-06-01	3 HE

Orozkoko kontsultategia	Familia medikua	2 HE	2016-12-03	2 HE
Orozkoko kontsultategia	Erizaina	2 HE	2010-06-01	Ez dauka
Orozkoko kontsultategia	Harrera	2 HE	2010-12-01	2 HE

- Dima: Familia medikua euskalduna, erizaina ez (nahiz eta hurrei euskaraz zuzentzeko gaitasuna baduen). Bi pediatria dituzte Igorren. Areatzan duzu bertako egoera.
- Artea: Areatzan duzu bertako egoera.
- Arantzazu: Areatzan duzu bertako egoera.
- Areatza: Pediatrarenera Igorrera joaten dira. Han bi pediatria daude, euskaldunak; baina bat bajan dago. **Ordezko gehienak ez dira euskaldunak izan.** Orain berri bat joango da (lekualdatzeagatik-edo). Hark 2H du. Pediatraren erizaina euskalduna da.
- Orozko: Harrerakoak euskaraz egiten du. Mediku batek euskaraz egiten du, eta bestea berria da, oraindik ez dute ezagutzen. Erizain batek ez daki euskaraz hitz egiten, eta gutxi ulertzen du. Pediatrarenera Laudiora joaten dira, eta euskalduna da.
- Igorreko osasun zentroari dagokionez, harrerako pertsona batek ez du euskaraz egiten. Mediku batek ez du hitz egiten, baina ulertzen du.

Busturialdea

Lanpostuaren inguruko informazioa				Lanean ari denaren inguruko informazioa
Zentroa	Lanpostua	Plazaren HE	Derrigortasun data	HE
Bermeoko EAG	Familia medikua	2 HE	2011-06-01	Ez dauka
Bermeoko EAG	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	2 HE
Bermeoko EAG	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	3 HE
Bermeoko EAG	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	3 HE
Bermeoko EAG	Erizaina	2 HE	2008-06-01	Ez dauka
Bermeoko EAG	Erizaina	2 HE	2008-06-01	2 HE
Bermeoko EAG	Erizaina	2 HE	2011-06-01	Ez dauka
Bermeoko EAG	Erizaina	2 HE	2008-06-01	2 HE
Bermeoko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	2 HE
Bermeoko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	2 HE
Bermeoko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	3 HE

Bermeoko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	3 HE
Bermeoko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	2 HE
Bermeoko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2010-12-01	Ez dauka
Bermeoko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	3 HE
Bermeoko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	3 HE
Bermeoko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	3 HE
Bermeoko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	2015-12-28	3 HE
Bermeoko osasun zentroa	Familia medikua	2 HE	Ez du DDrik	Ez dauka
Bermeoko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2008-06-01	3 HE
Bermeoko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2005-06-01	3 HE
Bermeoko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2011-06-01	2 HE
Bermeoko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2008-06-01	2 HE
Bermeoko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2008-06-01	2 HE
Bermeoko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2011-06-01	2 HE
Bermeoko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2009-12-01	2 HE
Bermeoko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2005-06-01	3 HE
Bermeoko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2005-06-01	2 HE
Bermeoko osasun zentroa	Erizaina	2 HE	2015-12-28	2 HE
Bermeoko osasun zentroa	Pediatra	2 HE	2008-06-01	2 HE
Bermeoko osasun zentroa	Pediatra	2 HE	2008-06-01	3 HE
Bermeoko osasun zentroa	Haur erizaina	2 HE	2015-12-28	3 HE
Bermeoko osasun zentroa	Haur erizaina	2 HE	2008-06-01	2 HE
Bermeoko osasun zentroa	Harrera	2 HE	2005-06-01	3 HE
Bermeoko osasun zentroa	Harrera	2 HE	2007-06-01	2 HE
Bermeoko osasun zentroa	Harrera	2 HE	2008-06-01	2 HE
Busturiko kontsultategia	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	3 HE
Busturiko kontsultategia	Erizaina	2 HE	2008-06-01	Ez dauka
Busturiko kontsultategia	Erizaina	2 HE	2011-06-01	3 HE
Muxikako kontsultategia	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	2 HE
Muxikako kontsultategia	Erizaina	2 HE	2005-06-01	2 HE
Eako kontsultategia	Familia medikua	2 HE	2005-06-01	3 HE
Eako kontsultategia	Erizaina	2 HE	2008-06-01	1 HE

Ajangiz: Gernikan jasotzen dute zerbitzua.

Muxika: herrian bertan jasotzen dute pediatria zerbitzua, Gautegizetik joaten da. Euskalduna da, eta 2HE du.

Uribealde

Lanpostuaren inguruko informazioa				Lanean ari denaren inguruko informazioa
Zentroa	Lanpostua	Plazaren HE	Derrigortasun data	HE
Bakioko kontsultategia	Familia medikua	2 HE	2010-06-01	3 HE
Bakioko kontsultategia	Erizaina	2 HE	2010-06-01	Ez dauka
Gatikako kontsultategia	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	2 HE
Gatikako kontsultategia	Erizaina	2 HE	2008-06-01	Ez dauka
<ul style="list-style-type: none">Gatikako pediatria: Mungiako kontsultategira joaten dira. Herritarrek beraiek aukeratzen dute medikua. Bat euskalduna da, eta besteak ez daki euskaraz.Bakioko pediatria: Mungiako kontsultategitik joaten da, erdalduna da.				

Larrabetzu

Lanpostuaren inguruko informazioa				Lanean ari denaren inguruko informazioa
Zentroa	Lanpostua	Plazaren HE	Derrigortasun data	HE
Larrabetzuko kontsultategia	Familia medikua	2 HE	2008-06-01	2 HE
Larrabetzuko kontsultategia	Erizaina	2 HE	2008-06-01	Ez dauka
Larrabetzuko kontsultategia	Harrera	2 HE	2006-01-31	2 HE
Galdakaora joaten dira pediarrarenera. Ez dute bat finkoa, beraiek aukeratzen dute. Batzuk euskaldunak dira eta besteak ez.				

OSASUN ARLOA

Euskara merezimendu gisa dago ia lanpostu guztietan eta hizkuntza eskakizuna (HE) duten lanpostuetan maila apala eskatzen da: V1.

2018ko Plantilla organikoko datuak UEMAko udalerrietan:

	OOLTko taldea Lanpostuak guztira/ HE bai (%)	HE duten lanpostuak	OOLTko erizaintza unitatea Lanpostuak guztira/ HE bai (%)	HE duten lanpostuak
ELIZONDO (Baztan)	17/5 %29	-administraria -LZA medikua -3 OOLTko mediku	15/3 %20	-2 erizain -1 OLT-EUD*
ETXARRI ARANATZ: Arbizu eta Etxarri Aranatz	12/4 %33,3	-administraria -gizarte langilea -OOLTko medikua -OOLTko pediatra	8/2 %25	-2 OLT-EUD*
IRURTZUN: Araitz eta Larraun	13/3 %23	- administraria -2 OOLTko mediku	10/2 %20	-2 OLT-EUD*
LEITZA: Areso, Goizueta eta Leitza	10/3 %30	-administraria -2 OOLTko mediku	7/2 %28,6	-Erizaina -OLT-EUD*
LESAKA*: Arantza, Bera, Etxalar eta Igantzi	12/7 %58,3	-gizarte laguntzailea -OOLTko pediatra -3 OOLTko mediku -2 LZAKo mediku	12/4 %33,3	-4 erizain
ULTZAMA: Basaburua	10/4 %40	-administraria -gizarte langilea -OOLTko medikua -OOLTko pediatra	7/1 %14,3	-OLT-EUD*

*Lesakan besteetan ez den beste zerbitzu bat ere bada: OOLTko administrazio unitatea. Bost lanpostuetako batek du HE: administrariak.

OSASUNGINTZA: EGOERA 2018

ARAITZ: medikua eta erizaina euskaldunak dira. **Pediatra erdalduna da.** Larrialditako mediku eta erizainak batzuetan euskaldunak eta beste batzuetan erdaldunak.

ARANTZA ETA IGANTZI: mediku-erizain berak daude bi udalerrietan. Medikua titularra euskalduna da, badu eskakizuna, eta bajaran egon da denboraldi luze batez, baina itzulia da lanpostura. Haren ordean 6-7 mediku ezberdin ibili dira, eta horietatik pare bat euskaldunak, eta gainerakoak ez.

Erizaina euskalduna da, baina ez du eskakizunik. Lesakako osasun etxera joaten dira pediatarrenera, eta hark ez daki euskaraz hitz egiten, baina euskaraz ulertzen du.

ARESO: Medikua euskalduna. **Eskualderako pediatria erdalduna.**

BASABURUA: Mediku titularra euskalduna (ordezkapenetan, erdalduna bidaltzen dute normalean) eta **erizainak ez du euskaraz hitz egiten, baina ulertzen du. Pediatria erdalduna da,** Larraintzarrera joaten dira.

BERA: Bi mediku erdaldun daude. Pediatria erdalduna da eta harrerakoa ere bai.

ETXALAR: medikua eta erizaina, biak euskaldunak dira. Medikua kontratazioan ez dago hizkuntza eskakizunik. Etxalargo haurrak **pediatria erdaldunak** artatzen ditu, Beran.

GOIZUETA: Medikua, erizaina eta administraria egoten dira egunero, eta euskaldunak dira. Guardiako txandak ere badituzte: bi erizain eta bi mediku. **Guardiakoen artean bada mediku bat erdalduna da.**

LARRAUN: **mediku** bat euskalduna da, eta bestea **erdalduna.** Erizainak euskaldunak dira. **Pediatria erdalduna da.** Larrialdietako **mediku eta erizainak** batzuetan euskaldunak dira, eta **beste batzuetan erdaldunak.**

LEITZA: Oraindik ez dago pediatarrik eskualdean. Ordezkoak joaten dira, baina beti ezberdinak, ez dago bat izendatuta Leitzalderako. Eta, gainera, etortzen direnak ez dira pediatriak, familia medikuak baizik. Orain bat jartzekoak dira, baina ez omen da izango euskalduna. Erizain eta medikuei dagokionez, lanpostuan daudenak euskaldunak dira, baita harrerako administrariak ere.